

2010ERA KO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN AURREKONTU AURREPROIEKTUAREN AURKEZPENA

Gipuzkoako Diputatu Nagusi, Markel Olanoren mintzaldia

SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkezten ditun aurrekontuak erantzun zuzen bat dira krisi ekonomikoaren egoerari aurre egiteko. Gure lehentasunezko kezka dira Gipuzkoako pertsonak eta enpresak. Horretarako:

- Politika soziala indartzeko ahalegin sendo bat egin dugu, 2009ko aurrekontuaren aldean gastua % 4,29 handituz. Foru Aldundiak egindako krisiaren aurkako plana txertatu dugu. Planak 100 milioi euro ditu, enplegua sustatzeko eta, batez ere, Gipuzkoako industria bultzatzeko helburuz.
- Aurrekontu hauen bitartez, inbertsioetan berebiziko eginahalak egingo ditugu, Gipuzkoaren ekonomia berpizteko asmoz. Gipuzkoako udalei arnasbide bat eskaintzeko eginbeharra ere aintzat hartu dugu: Foru Aldundiak 2010ean ez ditu 106 milioi euro jasoko, Udalen Finantzaketa Fondoaren itzulketaren bidez jaso behar lukeena, udalek 2011, 2012 eta 2013an itzuliko baitute zorra.
- Hori dena bideragarria izan dadin, bi urrats erabakigarri egin ditugu:
 - o Lehenik, gastu arrunta zorrozki mugatu dugu. Gipuzkoako Foru Aldundiak gerrikoa gogotik estutu du. Administrazioaren gastu arrunta batez beste % 12 murriztu dugu.
 - o Bigarrenik, 150 milioi euroko zorra onartu dugu. Zor hori aintzat hartzeko une egokia dela uste dugu.
- 2009. urte osoan zehar jasaten ari garen krisiak datorren urterako hazkuntza negatiboko aldia iragartzen digu, nahiz eta hazkuntza negatibo moderatuagoa izango den.
- Urte zaila dugu aurrez aurre, eta guztiok elkarri lagundu beharko diogu, egoera ekonomiko makurraren eragin gaiztoak ahal den neurrian gutxitzeko.
- Aurrekontu estuak dira, aurrean dugun urte zail honetan jarduera ekonomikoa berreskuratzeko xedeaz eta guztiontzako babes soziala bermatzeko helburuaz eginak.

- Aurrekontu hauekin batera, zerga alorreko foru arau lagungarri baten proiektua ere aurkezten dugu, enpresen eta norbanakoen erabakietan zuzeneko eragina duten zerga, inbertsio, aurrezki, kontsumo eta enpleguari dagozkien gaiei buruz Batzar Nagusiotan dagoeneko onartu ditugun eta, behar diren heinean, proposatzen jarraituko dugun arau aldaketekin, gure ustez ekarpen erabakigarria egingo dugu gure bizi kalitatea hobetzeari eta, betiere, gure ekonomi jasaten ari den ondorio negatiboak arintzeari begira.

1- 2010erako testuinguru ekonomikoa

- 2010. urterako, Barne Produktu Gordinaren hazkunde negatiboa aurreikusten da, -% 0,8 inguru.
- BPGaren deflaktorea (prezio bilakaeraren adierazlea) % 1,9 izatea aurreikusten da.
- Langabezia tasa % 9 inguru izan daiteke.
- Kontsumo publikoak eskariari tira egiten jarraituko du; kontsumo pribatuaren jaitsiera moderatzea aurreikusten da, ekonomiaren bilakaerarekiko konfiantza berreskuratzean; inbertsioa, berriz, hurrengo hilabeteetan gehien apalduko den faktorea izatea aurreikusten da, hau da, errekupeazio mantsoagoa izatea.

2 - GIPUZKOAKO 2010erako AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUAREN JARDUERA MARKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA

- Eragiketa arrunten diru sarrerak 3.949 milioi euro izango dira, hau da, 2009ko ekitaldiko aurrekontuaren aldean % 14,08 gutxiago.
- Zerga itunduen bidez bildutako sarrerak 3.629 milioi euro izango dira, hau da, 2009ko ekitaldiko aurrekontuaren aldean % 16,43 gutxiago, eta % 9,37 gehiago urte horretako likidazioaren aurreikuspenaren aldean.

- Gipuzkoako Foru Administrazioaren gastuen aurrekontua 2010erako 4.200,3 milioi euro izango da, hau da, 2009ko ekitaldiko aurrekontuaren aldean % 11,06 gutxiago.
- Dena dela, foru departamentuen aurrekontu operatiboa, hau da, kudeaketako aurrekontu propioa erakunde konpromiso guztiak kenduta (Kupoa, Eusko Jaurlaritzari eta udalei egin beharreko ekarpenak), 904,3 milioi euro izango da, 2009ko aurrekontuaren aldean % 1,01 gehiago.
- Kopuru horiek argi eta garbi adierazten dute Gipuzkoako Foru Aldundiak nolako ahalegina egingo duen datorren urtean, diru sarrerak murriztu arren, ekonomia bultzatzeko helburuaz eta gure herritarren babes soziala bermatzeko helburuaz gure gastu politikak sustatzeko.
- Aurrekontu bateratua, foru sozietate eta organismo publikoena barne hartuta, 5.127 milioi euro izango da.
- Beraz, kudeaketa aurrekontu propio bateratua 1.831 milioi euro izango da.
- Gipuzkoako Foru Administrazioaren 2010erako aurrekontuak finantzaketa behar bat dauka, hau da, eragiketa ez-finantzarioetan 189,9 milioi euroko defizita izango du.
- Aurreikusitako Zorpetze Gordina 150 milioi euro izatea aurreikusten dugu.
- Aldiz, Zor Publikoan egin beharreko amortizazioa ekitaldi osoan 25,4 milioi euro izango da.
- Ondorioz, Zorpetze Garbia ekitaldi osoan 124,5 milioi euro izatea aurreikusten dugu, eragiketa ez-finantzarioetan.
- Gauzak horrela, 2010ean Gipuzkoako Foru Administrazioak 123,6 milioi euroko Aurrezki Publikoa (sarrera arruntak ken gastu arruntak) sortuko du, aurreko urtearen aldean -% 11,72 gutxiago; kontuan izanik diru sarrerak ere murriztu egingo direla, argi ikusten da Aldundiak ahalegin handi bat egin duela bere gastu arrunta mugatzeko, baliabideen zati esanguratsu bat inbertsio ahaleginetan erabiltzeko. Gipuzkoako Foru

Aldundiaren inbertsioa 347 milioi euro izango da, hau da, kudeaketako aurrekontu propioaren % 37 inguru.


- Halaber, Inbertsio bateratuaren bolumen osoa, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren inbertsio zuzena gehi foru sozietate eta organismo publikoek egingo dutena, 632,7 milioi euro izango da; kopuru horrek, berriro ere, zalantzarik gabe erakusten du gaur aurkezten dugun aurrekontu honen bitartez egin nahi dugun inbertsio ahalegin handia.
- Gastu soziala bereiz aipatu behar dut, 348,8 milioi euro izango baita, 2009aren aldean % 4,23 gehiago; horra hor gure funtsezko beste konpromiso bat: gastu sozialari eutsi egingo diogu.
- Labur esanda, 2010erako Aurrekontu Proiektu honen oinarrizko ezaugarriak dira ekonomiaren beheraldiari aurre egitea, soiltasuna eta baliabideen erabilera zuzena bultzatzeko politika ezarriz, eta inbertsio gastuari eta gastu sozialari lehentasuna emanez; eta bere helburu funtsezkoak dira benetako ekonomia sustatzea, enpleguari eusteko, eta behar sozialen babesari ziurtatu eta hobetzea.
- Jarduera eta helburu horiek gauzatzea da aurrekontu hauetan jasotzen den lehentasuna, eta horren berri zehatzagoa emango dizue jarraian Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak.

Kudeaketako Aurrekontu Propioaren Aldaera Departamentuka

Variación del Presupuesto Propio de Gestión por Departamentos

Departamentua Departamento	2010	2009	% 2010/2009
01 DIPUTATU NAGUSIA DIPUTADO GENERAL	22.292,65	11.175,95	99,47
02 KIROLETAKO ETA KANPO EKINTZAKO DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO DE DEPORTES Y ACCIÓN EXTERIOR	30.453,98	30.168,64	0,95
03 LEHENDAKARITZAKO ETA FORU ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA Y ADMINISTRACIÓN FORAL	39.322,24	45.529,17	-13,63
04 OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS	46.647,76	49.851,00	-6,43
05 BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS VIARIAS	176.822,95	178.941,90	-1,18
06 GARAPEN IRAUNKORREKO DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO SOSTENIBLE	69.405,27	57.120,87	21,51
07 MUGIKORTASUNEN ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO	41.313,33	46.096,69	-10,38
08 GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL	348.797,78	334.642,39	4,23
09 LANDA INGURUNEAREN GARAPENEN DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO DEL MEDIO RURAL	37.943,53	45.740,99	-17,05
10 KULTURA ETA EUSKARA DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO DE CULTURA Y EUSKERA	34.920,30	46.027,60	-24,13
11 BERRIKUNTZAKO ETA JAKINTZAREN GIZARTEKO DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO DE INNOVACION Y SOCIEDAD DEL CONOCIMIENTO	46.745,59	41.502,93	12,63
14 BATZAR NAGUSIAK JUNTAS GENERALES	7.494,80	7.729,87	-3,04
95 ZENBAIT DEPARTAMENTUTAKO GASTUAK GASTOS DIVERSOS DEPARTAMENTOS	2.190,18	776,24	182,15
Kudeaketako Aurrekontu Propioa Guztira Total Presupuesto Propio de Gestión	904.350,36	895.304,24	1,01

(Mila eurokotan/Miles de euros)



Gastuen Aurrekontuaren Aldaera Kapituluak
Variación del Presupuesto de Gastos por Capítulos

(Mila eurokotan/Miles de euros)

Kapituluak Capítulos	2010	%	2009	%	% 2010/2009
1 LANGELIAREN GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	106.000,00	2,52	106.500,00	2,26	-0,47
2 ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO OHIKO GASTUA GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	98.911,12	2,35	105.959,67	2,24	-6,65
3 FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS	14.512,00	0,35	13.150,00	0,28	10,36
4 OHIKO DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIA TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES	3.605.623,53	85,84	4.107.235,55	86,97	-12,21
Ohiko Eragiketak Guztira Total Operaciones Corrientes	3.825.046,65	91,07	4.332.845,23	91,75	-11,72
6 INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	235.716,84	5,61	265.666,37	5,63	-11,27
7 KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZI TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL	111.384,79	2,65	110.244,67	2,33	1,03
Kapitalaren Eragiketak Guztira Total Operaciones de Capital	347.101,63	8,26	375.911,04	7,96	-7,66
8 FINANTZA AKTIBOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS	2.650,00	0,06	4.673,38	0,10	-43,30
9 FINANZTZA PASIBOAK/ PASIVOS FINANCIEROS	25.488,17	0,61	9.088,20	0,19	180,45
Finantzaren Eragiketak Operaciones Financieras	28.138,17	0,67	13.761,58	0,29	104,47
Aurrekontua Guztira/Total Presupuesto	4.200.286,45	100,00	4.722.517,85	100,00	-11,06

